*Nota de prensa- Aiarako Kuadrilla- Cuadrilla de Ayala*

# Aiarako Kuadrillak komunitateko konpostaje-eremu berria jarri du Artziniegan

- Gune horiek hondakin organikoen kudeaketari irtenbide iraunkor eta lokalizatua ematen diote.
- Laster Artziniegako familiak antolaketa-bilera batean parte hartzera gonbidatuko dituzte, kudeaketa-eredu berri baten hasiera izango den bilera batean alegia.

**Aiarako Kuadrilla, 2023ko abenduak 28a**

Aiarako Kuadrillak auzo-konpostajerako laugarren gunea instalatu du, kasu honetan Artziniegako udalerrian. Gune horiek konpostagailuak eta egituratzailearentzako kutxa bat dituzte, eta hondakin organikoen kudeaketari irtenbide iraunkor eta lokalizatua ematen diote.

Enpresa trebatu eta espezializatu batek lagunduta (enpresa horrek parte-hartzaileen taldearen jarraipena, mantentze-lanak eta dinamizazioa egiten ditu), komunitatean dauden familiek animalia-jatorriko eta jatorri begetaleko hondakin organiko prestatuak eta prestatu gabeak utziko dituzte, ondoren konpostatzeko. Taldea ekimenari berariaz atxikitako familiek osatzen dute, eta familia horiek jasoko dute, ondoren, emaitzazko konposta.

Instalazio horrekin, laster Artziniegako familiak antolaketa-bilera batean parte hartzera gonbidatuko dituzte, kudeaketa-eredu berri baten hasiera izango den bilera batean alegia.

Aiarako Kuadrillak, 2024an, etxeko eta komunitateko konpostajearen praktika udalerri handienetako auzoetara eta eskualdeko Administrazio Batzarretara zabaltzea aurreikusten du, biohondakinen kudeaketa-eredu gisa. Horretarako, berariazko prestakuntza-jardunaldi eta -ikastaro berriak egitea aurreikusten da.

**Aiarako Kuadrillako etxeko konpostagailuen sarea**

2015. urteaz geroztik, Aiarako Kuadrillak etxeko konpostajeari buruzko ikastaroak egiten ditu Kuadrilla osatzen duten udalerrietan. Duela gutxi, ingurumen-arloko zerbitzu teknikoak jarraipen-deiak egin ditu azken urteetan egindako ikastaroetan parte hartu duten 125 pertsonen lagin batean. Elkarrizketatutako pertsonen % 80k adierazi du etxean konposta egiten jarraitzen duela. Konposta egiteari utzi diotenek emandako arrazoien artean, denbora falta eta komunitateko konpostaje-sistemetan martxan jartzea daude, besteak beste.

**Edukiontzi marroia**

Bestalde, 2024an, edukiontzi marroian txartel bidez sartzeko kontrol-sistema eskualdeko beste eremu batzuetara zabalduko da. Gaur egun, Luiaondon dago instalatuta sistema hori. Ekimen

horrekin batera, poltsa konpostagarriak entregatzeko bi gune daude, goizez eta arratsaldez eskuragarri.

Elkarren osagarri diren bi jardun-zuzendaritzekin, urratsak ematen jarraituko da gaikako bilketaren helburuak lortzeko bidean, eta, horretarako, ezinbestekoa izango da herritarren parte-hartzea.

Aiaralde zirkularra, Aiaralde berdea.

**Komunikabideen kontaktua:**

**Miriam Bahillo**

**mbahillo@coonic.com**
**659 753 399**

*Nota de prensa- Aiarako Kuadrilla- Cuadrilla de Ayala*

# La Cuadrilla de Ayala instala una nueva zona de compostaje comunitario en Artziniega

- Estas zonas suponen una solución sostenible y localizada a la gestión de los residuos orgánicos.
- Próximamente las familias de Artziniega serán invitadas a participar en una reunión organizativa que supondrá el punto de inicio de un nuevo modelo de gestión.

**Cuadrilla de Ayala, 28 de diciembre de 2023.**

La Cuadrilla de Ayala instala la cuarta zona de compostaje comunitario, en este caso en el municipio de Artziniega. Estas zonas, dotadas de compostadoras y de un cajón para el estructurante, suponen una solución sostenible y localizada a la gestión de los residuos orgánicos.

Acompañados de una empresa formada y especializada que se encarga de llevar a cabo las labores de seguimiento, mantenimiento y dinamización del grupo de participantes, las familias en comunidad depositan sus restos orgánicos cocinados y no cocinados, de origen animal y vegetal, para su posterior compostaje. El grupo se constituye de familias adheridas expresamente a la iniciativa, que serán quienes posteriormente reciban el compost resultante.

Con esta ampliación, próximamente las familias de Artziniega serán invitadas a participar en una reunión organizativa que supondrá el punto de inicio de un nuevo modelo de gestión.

La Cuadrilla de Ayala prevé durante 2024 extender la práctica del compostaje doméstico y comunitario a aquellas zonas cómo son los barrios de los municipios más grandes y las Juntas Administrativas de la comarca como modelo de gestión de los biorresiduos complementario a la recogida mediante contenedor en la zona urbana. Para ello se prevé la celebración de nuevas jornadas y cursos formativos específicos.

**Red de compostadores domésticos de la Cuadrilla de Ayala**

Desde el año 2015 la Cuadrilla de Ayala viene celebrando cursos sobre compostaje doméstico en los diferentes municipios que la integran. Recientemente, el servicio técnico del área de medio ambiente, ha llevado a cabo llamadas de seguimiento en una muestra de 125 personas que han participado en los cursos celebrados los últimos años. Las personas entrevistadas, en cerca de un 80% afirman seguir haciendo compost en su casa. Entre las razones aducidas por parte de quienes han dejado de hacer compost, están la falta de tiempo y la entrada en funcionamiento en sistemas de compostaje comunitario entre otras.

**Contenedor marrón**

Por su parte, durante 2024 se ampliará la instalación del sistema de control de acceso mediante uso de tarjeta en el contenedor marrón a otras zonas de la comarca. Actualmente este sistema está instalado en Luiaondo, una iniciativa acompañada de la habilitación de dos puntos de entrega de bolsas compostables en horario de mañana y tarde.

Con ambas direcciones de actuación, complementarias entre sí, se seguirán dando pasos en la consecución de los objetivos de recogida selectiva, para lo cual será imprescindible la participación de la ciudadanía.

Aiaralde zirkularra, Aiaralde berdea.

**Contacto Medios:**

AIARAKO KUADRILLA
CUADRILLA DE AYALA

**Miriam Bahillo**

**mbahillo@coonic.com**
**659 753 399**